



TINKO GARBIKETAK

“Lan eginez baliagarri sentitzen dira emakumeak”

Lur Mallea

Laneratze prozesua zaila da edonorentzat, baina emakumeentzat, zoritxarrez, sexuen arteko berdintasuna lan mundutik urruti aurkitzen da. Gasteizko legebiltzarrean 2005eko otsailan onartu zen Berdintasun legeak denbora askosaz gehiago

beharko du gizon-emakume arteko desoreka handia konpontzeko. Helburu beretsuz, Tinko enpresak emakumeei garbiketa arloan lana bilatzen laguntzen die 2003ko abendutik; seme-alabak bakarrik hazten dituzteei (nagusiki), bazterketa egoeran

bizi direnei, tratatu txarrak jaso dituztenei, etorkinei edota lan formakuntza eskasa dutenei. Pausuz-pausu, zortzi andrazkori lana aurkitu die Tinkok eta beste lau lanpostu sortu ditu enpresaren kudeaketarako eta emakume hauei laguntza eman eta beraien





garapenaren jarraipena egiteko. Beraz, hamabi pertsona ari dira, une honetan, Euskal Autonomi Erkidegoan lan eta lan. Gainera, enpresak hazteko aukera asko ditu.

Arro sentitzen dira

Emakume hauetako batzuenzat lehenengo lan esperientzia da Tinkorekin lortu dutena. Arantza Caballero enpresako gizarte-langileak laneratzeak psikologikoki asko laguntzen die-la dio. "Baliagarri sentitzen dira, beren buruaz gustora. Andre batzuk urteetan egon dira diru-laguntzen menpe eta egindako lanak beren kabuz umeak aurrera ateratzeko aukera ematen die, neurri batean, eta hori beraien-zat arro egoteko arrazoia da".

Atariak, bulegoak eta gara-geak garbitzen dituzte. Langi-

le guztiak astero elkartzen dira talde bileran eta hilero, banaka, gizarte-laguntzaileaz. Orduan izaten da langile bakoitzaren jarraipen zehatza egiteko unea. Nork bere hiru urteko plangintza du, hau da, hiru urtetan lan gaitasuna eta ohitura bereganatuko ditu enpresaren laguntzaz eta hortik aurrera bakarrik ekin beharko dio lan merkatuan.

Funtzionamendua

Ahoz-aho jakin da Tinkoren berri eta horrela ari dira gero eta bezero gehiago eskuratzen. Edonork kontratatu ditzake edozein herri eta auzotan eraikinen bat garbitzeko. Beraien funtzionamendua sinplea da, lanpostua sortzen den zonaldeko gizarterbitzuekin harremanetan jarri eta hautagai egokia topatzen dute. Hautagaia izateko baldin-

tza gutxi bete behar dira Arantza Caballeroren esanetan "laneratze hitzarmena sinatuta izan behar du eta garbiketa industrial kurtsoa egina badu, hobeto. Bestela, Tinko arduratzen da ikastaro hori emateaz. Horrela, interesa dutenen curriculumak jaso eta datu basea osatzen ari gara". Baina norberak ere jo dezake Tinkora zuzenean laguntza eta lan eske. Langileen hainbat lagun eta senide hurbildu zaizkie horrela.

Beti Gizartean fundazioa da Tinkorentzat baliabideak lortu eta bideratzen diharduena, nahiz eta talde autonomoak izan. Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza jasotzen dute soldaten, hornikuntzen eta egin beharreko inbertsioen zati bati aurre egiteko. Baina, Beti Gizarteanek emakumei laneratzen laguntzeko zaharren egoitza bat ere badu, Gasteizen, Ikatzbizi izenokoa. Egoitza horretan hamaika pertsona ari dira lanean zortzi agure zaintzen.

Ametza

Amet bat dute Beti Gizarteanekoei, lur sail bat eskuratu eta bertan etxe handi bat eraikitzekoa. Zertarako? Zaharren egoitza handitzeko, Tinkok han-hemenka duen materiala gordetzeko, langileei formakuntza kurtsoak emateko, bulegoa zentralizatze eta lana lortzen duten emakumeen aurrentzat elkargune aproposa izateko. Familia txikia da eta handi bihurtu nahi du desabantaila sozialak ezabatze bidean. Zorte ona opa diegu Fridatik. **F**

